

Errealitate birtualeko 360°-ko hiru bideoren bidez, Katedralaren eraikuntzaren historia osorik ikus dezakegu



Santa Maria Katedrala Fundazioak errealitate birtualeko hiru ikus-entzunezko berri sartu ditu bisita gidatuen programan. Pieza berri horiei esker, Katedrala eraikitze bilakaeraren sekuentzia osoa egin ahal izango dute bisitariak hainbat espaziotan, Errealitate Areagotuan bisita integrala eta osoa egin ahal izatearekin batera.


Lehen bideoa (Santa Maria berrasmatzea, 1280-1330 urteak) egungo arkupean kokatzen da (oraindik eraiki gabea), eta, bertan, hiriko harresia eta irteera-atea, ingurune hirigintza eta Santa Mariaren eraikuntza (mendebaldeko fatxada) ikus daitezke. Alfontso VIII.ak hasitako tenpluan geldialdi garrantzitsu bat egin ondoren, obra 1280. urte aldera jarriko da berriz martxan, eta arkitekturan aldaketa garrantzitsuak egingo dira. Era horretan, tradizio erromanikoko ereduak jarraitzen zituen lehen elizaren aurrean, logika gotikoaren arabera eraikina proiektatzen da orain.

Bigarren bideoak (Iñiguezarren hileta-panteoia, 1300. urtea) transeptuaren hegoaldeko besoan kokatzen ditu bisitak, Hirutasun Santuaren eta Santa Anaren kaperen parean. Indusketa arkeologikoen arabera, kaper horien erdian Iñiguezarren hilobi exentu monumental bana zeuden, 1300. urte inguruan Santa Maria sortu zuten zaindaria.

Azkenik, baita arkupeak ere, **hirugarren bideoaren (Fatxada harmonikoaren proiektua, 1330-1350 urteak)** bidez, Santa Maria eraikitze prozesua ezagutzen jarraituko da, orain XIV. mendearen bigarren herenean.

360°-ko ikus-entzunezko berriak Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren finantzaketa jaso dute, eta Katedrala errealitate birtualaren bidez ezagutzeko bisita gidatuen eskaintzan sartu dira jada. **Era horretako bisitak egin nahi dituzten pertsonak Katedralaren web orrialdean edo 945 255135 telefonora deituta egin ditzakete erreserbak. Gainera, bideoak Fundazioaren YouTubeko kanalean ikus daitezke.**

Errealitate birtualeko 360°-ko bideo berrien bidez, "denboran zehar bidaiatu" daiteke XIII. eta XIV. mendeetako Katedralera. Era horretan, 2018an hasitako ekimenari amaiera emango zaio, Gasteizko jatorriari, Erdi Aroko harresiari eta Santa Maria Katedralari buruzko liburuaren hainbat kapitulu idazten joan baitira 3D formatuan.



In Memoriam

Duela gutxi Katedraleko Kabildoko bi apaiz joan zaizkigu: On Jose Angel Lopez de Lacalle eta On Txomin Gomez. Bi pertsona min horiei Fundazioko langile guztiek maitasun eta estimu handia zieten.

Haien inguruan ditudan oroitzapen batzuk partekatu nahiko nituzke.

JOSÉ ÁNGEL LOPEZ DE LACALLE



Jose Angel Santa Mariako parroko eta Kabildoko kide bezala ezagutu nuen.

1966an Tomas Morori eskaintako filmaren izenburua parafraseatuz, Jose Angel "A man for all seasons" zen. Bihotz handia zuen, jendeari irekia, eta beti prest zegoen eskatzen zionari laguntzeko. Berakah-en sortzailea izan zen, eta erretiro-pentsioko dirua behar zuenari botikak eta beste gauza batzuk erosteko erabiltzen zuen. Eta beti modu anonimo eta desinteresatuan, hurkoa maitatzeko eta laguntzeko misio ebanjelikoa betez.

Fundazioko taldearentzat une maitagarri moduan gogoratu nahi nuke, Dorreko punturik altuenean aldazio batera igo eta Dorrea berritzeko lanen amaiera bedeinkatu zuen unea.



TXOMIN GÓMEZ



Txomin pertsona jantzia eta edukazio onekoa zen, jarrera adeitsukoa eta hitz egitea gustatzen zitzaiona. Haurren eta gazteen hezkuntza asko interesatzen zitzaion, unibertsitateko irakaslea eta hezkuntza eta irakaskuntzako elizbarrutiko ordezkaria baitzen.

Halaber, Kabildoko kide izan zen, eta, ondoren, Deán. Biok Katedralarekiko genuen maitasunak lotzen gintuen, eta beti elkarrekin lan egin genuen Katedralaren, Kabildoaren eta Fundazioaren ondasun komunaren alde.

Une maitagarri moduan, gogora ekarri nahi nuke XIII. mendean Santa Maria Katedrala eraikitzeari buruzko errealitate birtualeko 360° bideoan nola parte hartu zuen, agintari erlijiosoarena eginaz, obren martxa gainbegiratzeko.



Goian bego-lagun maiteak

Jon Lasa